



Usurbilgo Udala



2014KO APIRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Kontu-hartzailea: Lioba Maiza Recondo A.

Ezin etorria adierazi dute: Eustakio Arrojeria Eguzkiza Jk. eta Ricardo Crespo Rubio Jk.

Ez dira bertaratu: Jose María Rivadeneyra Sicilia J. eta Josune Urkola Larrarte A.

Arratsaldeko 18:06etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko apirilaren 29an, arratsaldeko 18:06etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2014KO MAIATZAREN 25EAN IZANGO DIREN EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

Idazkariak mahaikideen zozketari ekin aurretik aipatu du hauteskunde hauetan zazpi mahai izango direla Usurbilen, mahai bat gutxiago. Zehaztu du Kalezarren mahai bat kendu dutela, beraz, lehen bi mahai baziren orain bakarra izango dela esan du. Zehaztu du mahai bakoitzean 1.200 hautesleren muga jarri dutela instrukzio baten bidez eta Kalezarko bi mahaiak batuta 1.187 hautesleko mahaia geratzen dela.



Usurbilgo Udala



Jakinarazi du udalak erabaki honen aurrean alegazioa aurkeztu zuela, esanez mahai honetan kudeaketa aldetik arazoak sor daitezkeela etab., baina ez dela onartua izan aditzera eman du.

Jarraian, 2014ko maiatzaren 25ean izan diren Europako Parlamenturako hauteskundeetako mahaikideen zozketa egin da CONOCE programa informatikoa erabiliz.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO MARTXOAREN 15ETIK APIRILAREN 16RA (2014/0242 – 2014/0366)

Alkatetzak 2014ko martxoaren 15etik apirilaren 16ra bitartean (2014/0242-2014/0366) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-6 (AGERREAZPI) SEKTOREAN KOKATUTAKO UDAL JABARI PUBLIKOKO 5.201 M² LURSAILETIK, 55,93 M²-KO LUR ZATIA DESAFEKTATZEA, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-106 EREMUAN KOKATUTAKO MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA ANDREAREN 55,93 M²-KO LUR ZATI BATEKIN PERMUTATZEKO.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Agerreazpi sektorearen urbanizazio lanak aurrera eramateko eta bukatzeko behar beharrezkoa zela esan du sektoretik kanpo zegoen eta Maria Aranzazu Unanue Rotetaren jabetzakoa zen lursail bat hartzea. Hori horrela, permuta bat egitea adostu zela zehaztu du.

Udal idazkariaren txostena dagoela esan du, non esaten den juridikoki nola egin behar den aurrera egin ahal izateko. Halaber, txosten horretan esaten dela dio, besteak beste, beharrezkoa dela aldaketa hau egitea urbanizazio lanak bukatu ahal izateko, jabari publikoko lursailekin konpentsatu daitekeela eta operazio honetan dagoen interes publikoa justifikatzen dela.

Bestalde, Herri Administrazioen Patrimonioaren Legeak diona ere aztertzen dela eta horretan oinarrituta zer prozedura jarraitu behar den zehazten dela esan du.

Jarraitu du esanez txosten juridikoan gogoratzen dela ere jabari publikoko ondasunak ezin direla besterenganatu beren kalifikazioa aldatzen ez den bitartean behintzat, hau da, desafekzioa ematen ez den bitartean. Horrela, jabari publikoko ondasuna ondasun patrimoniala bihurtu eta, ondoren, egin daitekeela permuta hori gaineratu du.

Ondasun patrimonialak besterenganatzen direnean prozedura orokor bezala enkantea edo subasta izango litzatekeela dio, baina salbuespen bat badagoela esaten da txostenean, hain zuzen ere, trukatu nahi diren ondasunen beharra justifikatu ezker eta



Usurbilgo Udala



bi ondasunen arteko aldea %40a baino handiagoa ez dela ziurtatzen denean, kasu horretan permuta bat egin daitekeela. Kasu zehatz honetan, bi baldintza horiek betetzen direla zehaztu du. Halaber, lurzatiak alde zuzenetik segregatu egin beharko direla eta ondasunen balorazio tekniko bat egin beharko dela esaten dela gaineratu du.

Amaitzeko esan du espedientearen jasota dagoela udal arkitektoaren balorazio teknikoa.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzaileko diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2012-0324

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko Urbanizazio Proiektuko lanak behar bezala bukatzeko ezinbesteko da sektoretik kanpo kokatuta dagoen jabari pribatuko 55,93 m²-ko lur zatia hartzea. Lur zati hau MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearena da eta Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-106 (Agerre Azpi) eremuan kokatzen da, aipatutako sektorearen mugan.


Gauzak horrela, urbanizazio lanak bukatzeko, hartu beharreko 55,93 m²-ko lur zatia okupatu ahal izateko, lur zati hau S-6 (Agerreazpi) Sektoreko jabari publikoko 55,93 m²-ko beste lur zati bategatik permutatzea adostu da MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearekin.

Alkateak, 2011/0079 zenbakidun dekretuaren bidez, 2011ko urtarrilaren 25ean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreari dagokion Birpartzelazio Proiektua behin betikoz onartu zuen (GAO, 24. zenbakia, 2011ko otsailaren 7an).

Birpartzelazio Proiektu honen bidez eskuratu zuen Usurbilgo Udalak trukatu nahi den zatia jasota dagoen lursaila. Lursaila erabilera publikoari atxikita dago; jabari publikoko udal ondasuna da. Jabetza Erregistroko ziurtagirian honela jasotzen da:

Finca: 5611

Superficie: 5.201 m²





Usurbilgo Udala



Descripción de la finca: Finca urbana señalada con la referencia B de la relación de parcelas resultantes del PROYECTO DE REPARCELACIÓN DEL SECTOR S-6 AGERREAZPI de las NN.SS de Usurbil. Parcela destinada a equipamiento comunitario público, con una superficie de 5.201 m². Tiene una edificabilidad sobre rasante de 2.500 m²/t. Bajo rasante tiene un techo de 1.000 m² (t). Su perfil edificatorio es de sótano, planta baja o entresuelo y dos plantas altas. Sus linderos son: Norte: parcela C destinada a parque urbano. Sur: parcela C destinada a parque urbano y parcela D destinada a espacios libres comunes, red peatonal y viales. Este: parcela C destinada a parque urbano. Oeste: Límite de la Unidad de Ejecución y parcela D destinada a espacios libres comunes, red peatonal y viales.

Titularidad: AYUNTAMIENTO DE USURBIL 100% del PLENO DOMINIO

Inscripción: Folio 199 del tomo 1772, libreo 216, inscripción/anotación 1.

Udal idazkariak burutu nahi den lur trukaketa aztertu eta ondoko txostena eman zuen:

LEGE-TXOSTENA

Gaia: Udal jabetzako lursailen permuta

Espedientea: HZ.06/2012-0324

1.-AURREKARIAK

“Agerreazpi” izeneko 6. Sektorea lurzoru urbanizagarritzat sailkatuta dago, 2004ko irailaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bitartez behin betiko onartu ziren Usurbilgo Plangintza Arau Subsidiarioetan (2011ko irailaren 6ko akordioaren bidez Testu Bateratua). Hauetan, gainera, egoitzazko lurzorutzat kalifikatzen da eta bere ordenazio xehekatua zehazteko Plan Partziala idaztea agintzen da.

6. Sektoreko Plan Partziala, Udal Osoko bilkurak 2007ko martxoaren 28an onartu zuen, behin-betiko izaeraz eta baldintzatua. Agiri honek hainbat aldaketa zehatza jasan ditu, lehendabizikoa udal osoko bilkurak 2008ko maiatzaren 24an onartua, eta bigarrena 2010eko abenduaren 28an onartua.

Plan Partzialaren azken aldaketan onartutako antolamendu xehatua jarraituz, Hirigintza Jarduketa Programa, Birpartzelazio proiektua eta Hiritartze proiektua idatzi eta behin betiko izaeraz onartu ziren.

Hirigintza dokumentu guztiak onartu ondoren, urbanizazio eta eraikitze lanekin hasi zen.

6 sektoreak A-106 eremuarekin mugatzen du, “Agerre azpi” izena duena ere. Eremu honek 2.998 m²ko azalera du, hiri-lurzoru



Usurbilgo Udala



bezala sailkatzen da, bizitegi erabilerakoa da, eta bi bizitzako etxea eraikitzeke aukera du.

A-106 eremua, dentsitate txikikoa da, herri jabariko lursailez inguratuta dago, Usurbilgo Udalarenak direnak, S-6 Birpartzelazio proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzean eskuratu zituenak.

S-6 eremuko urbanizazio lanak burutzeak, S-6 sektoreko mugaketan arazoak daudela argi utzi du, urbanizazio lanak bukatzeko jabari pribatuko 55,93 m²ko lursaila hartu behar baita. Arazo hau, sektoreak A-106 eremuarekin mugatzen duen lekuan ematen da.

Bestetik, A-106 eremuak, bai Ekialdetik bai Mendebaletik, herri jabarikoak diren A eta B lursailekin – komunitate-ekipamendu erabilera publikoak direnak – mugatzen du. Usurbilgo udalak, S-6 Agerreazpi sektorean eskuratutako bi lursail horien deskribapena honako hau da:

1. A LURSAILA: Komunitate-ekipamendu erabilera publikoko lursaila, 3.842 m²ko azalera duena. Sestra gaineko 2.500 m² (t)ko eraikigarritasuna dauka. Sestrarean 1.000 m²(t). Eta sotoaz, beheko solairua edo basardez eta 2 solairuz osatuko da.
2. B LURSAILA: Komunitate-ekipamendu erabilera publikoko lursaila, 5.201 m²ko azalera duena. Sestra gaineko 2.500 m² (t)ko eraikigarritasuna dauka. Sestrarean 1.000 m²(t). Eta sotoaz, beheko solairua edo basardez eta 2 solairuz osatuko da.

Beraz, S-6 sektoreko urbanizazioak hartzen duen azalera, A-106 eremuarekin mugatzen duen herri jabariko lursailekin konpentsatu daiteke.

Espedientean aurkitzen da ARAUDI S.L.ko Nekane Azarola hirigintzako aholkulariak 55,93 m²ko lursaila trukatu ahal izateko burutu duen justifikazio txostena, dagoen interes publikoa justifikatuz aipatu lursaila permutatu ahal izateko.

2.-GAIAREN AZTERKETA

Udal jabetzako aipaturiko lurzatiak, jabari publikoko ondasun izaera du. Halaber, erabilera publikoari atxikitako ondasun bat izango litzateke aurrekarietan aipatu moduan.

Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuak, honako hau xedatzen du 5.art.n: *“Los bienes comunales y demás bienes de dominio público son inalienables, inembargables e imprescriptibles y no están sujetos a tributo alguno”*. Era berean, toki-entitateen araubide juridikoa erregulatzen duen apirilaren 2ko 7/1985 legeak berdina xedatzen du bere 80.art.n. Bestetik, lege bereko hurrengo artikulua, honako hau gaineratzen du: *“la alteración de la calificación jurídica de*



Usurbilgo Udala

los bienes de las entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad”.

Halaber, antzeko terminoak erabiltzen ditu azaroaren 3ko 33/2003 Legeak, Herri administrazioen patrimonioari buruzkoak. Honela dio, bere 30.art.n: *Los bienes y derechos de dominio público son inalienables, imprescriptibles y no están sujetos a tributo alguno.*

Aipatutako lege-xedapenak kontutan hartuz, jabari publikoko ondasunak ezin dira besterenganatu, beren kalifikazioa aldatzen ez den bitartean behintzat. Beraz, ondasun honen **desafekzioa** eman beharko litzateke, eta **jabari publikoko ondasuna patrimonial bihurtu**.

Bestalde, jabari publiko ondasunen desafekzioa edo izaera juridikoa aldatzeko eman beharreko pausuak Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuak zehazten ditu bere 8. artikuluan: *“1. La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad” eta “2. El expediente deberá ser resuelto, previa información pública durante un mes, por la corporación local respectiva, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma* (zehaztasun hau apirilaren 2ko 7/85 legean ere aipatzen da, 47.art.n). Bestetik, artikuluko bereko 3. atalak honako hau gaineratzen du: *“En cualquier caso, la incorporación al patrimonio de la entidad local de los bienes desafectados, incluso cuando procedan de deslinde de dominio público, no se entenderá efectuada hasta la recepción formal por el órgano competente de la corporación de los bienes de que se trate, y en tanto la misma no tenga lugar seguirán teniendo aquellos el carácter de dominio público.*

Beraz, aipaturiko **permuta egin ahal izateko**, lehenik eta behin, **ondasun honen desafekzioa** eman behar da, legedian ezarritako prozedura betez. Besteak beste, kasu honetan, 55,93 m²ko lursaila desafektatu eta ondoren trukatzeko egokitasuna eta legezkotasuna justifikatu behar dira, horrela dio hitzez hitz ARAUDI S.L.ko Nekane Azarola hirigintzako aholkulariak landutako txostenean:

“ (...) kasu honetan, 55,93 m²ko lursaila desafektatu eta ondoren trukatzeko egokitasuna eta legezkotasuna justifikatzen direla pentsatzen dugu, arrazoi hauengatik:

1.- Udalak S-6 sektoreko urbanizazioa behar bezala bukatu eta aurrerantzean mantentzeko duen interesa, horretarako jabari pribatukoa den lursaila hartu gabe.

2.- Lursailaren trukaketaren bidez, S-6 eta A-106 eremuen mugaketa ongi antolatzea.

3.- Usurbilgo Udalak sektorean 9.043 m² ditu komunitate-ekipamendu erabilera publikorako, beraz 55, 93 m² horiek ez dute garrantzirik eta ez dira



Usurbilgo Udala



beharrezkoak, konparatzen badugu, A-106 eremuko urbanizazioa bukatzeko lurrak lortzen direla.

Aipatu guztiagatik, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da, planteatutako desafektazioa eta trukaketa bideratzea”.

Behin desafektazioa bideratuta, honako hau azpimarratu beharrean gara:

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege-dekretu legegileak, zeinak Herri administrazioen kontratuen legearen Testu Bategina onartzen duen, honako hau xedatzen du 5.2.art.n: *“Los restantes contratos del sector público se calificarán según las normas de derecho administrativo o de derecho privado que les sean de aplicación.”*

Bestalde, horrela xedatzen du lege bereko 4.1.p) atalak: *“1. Están excluidos del ámbito de la presente Ley los siguientes negocios y relaciones jurídicas: p) Los contratos de compraventa, donación, permuta, arrendamiento y demás negocios jurídicos análogos sobre bienes inmuebles, valores negociables y propiedades incorporales, a no ser que recaigan sobre programas de ordenador y deban ser calificados como contratos de suministro o servicios, que tendrán siempre el carácter de contratos privados y se regirán por la legislación patrimonial.(...)”*. Eta artikuluko bereko 2. atalak ondorengoa xedatzen du hitzez hitz: *“2. Los contratos, negocios y relaciones jurídicas enumerados en el apartado anterior se regularán por sus normas especiales, aplicándose los principios de esta Ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse”*.

Azkenik, izaera pribatuko kontratuen araubide juridikoari buruz, honako hau xedatzen du 20.2 art.k: *“2. Los contratos privados se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo, aplicándose supletoriamente las restantes normas de derecho administrativo o, en su caso, las normas de derecho privado, según corresponda por razón del sujeto o entidad contratante. En cuanto a sus efectos y extinción, estos contratos se regirán por el derecho privado”*.

Beraz, aurreko artikuluek Toki entitateen ondasunen gaineko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretura garamatza berriz.

Zehazki, aipatu erregelamenduak ondasun patrimonialak besterenganatzeko prozedura orokor bezala, enkantea ezartzen du. Hala ere, honakoa azpimarratzen du 112.2. artikulua: *“No será necesaria la subasta en los casos de enajenación mediante permuta con otros bienes de carácter inmobiliario, previo expediente que acredite la necesidad de efectuarla y que **la diferencia del valor entre los bienes que se trate de permutar no sea superior al 40% del que lo tenga mayor**”*.



Usurbilgo Udala



Beraz, aipatu baldintzak betetzen badira, ez da beharrezkoa enkantea erabiltzea, permuta erabiltzea posible delarik.

Erregelamendu bereko 113. eta hurrengo artikuluetan aipaturikoa ere kontutan hartu behar da: “Antes de iniciarse los trámites conducentes a la enajenación del inmueble se procederá a depurar la situación física y jurídica del mismo, practicándose su deslinde si fuese necesario, e inscribiéndose en el Registro de la Propiedad si no lo estuviesen”.

Beraz, **lurzatiaren egoera fisikoa depuratu** beharko da permuta egin baino lehen. Bestalde, **jabetza errejistroan inskribaturik egon beharko du** lursailak.

Kasu honetan ere, bai Udalaren lursaila eta baita ere beste interesatuaren **lurzatiak alde zuzenetik segregatu beharko dira**, azken kasu honetan, udalaren segregazio baimena eskatu eta lortu beharko delarik.

Halaber, **ondasunen erroldako ziurtagiri bat** beharko da, non ziurtatuko den ondasunak, behin desafekzioa eman ondoren, patrimonial izaera duela.

114.art: “En cualquier supuesto, las enajenaciones de bienes cuyo valor exceda del 20% de los recursos ordinarios del presupuesto deberán ser acordadas con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación”.

118.art: “Será requisito previo a toda venta o permuta de bienes patrimoniales la valoración técnica de los mismos que acredite de modo fehaciente su justiprecio”.

Artikulu honek agindutakoa betetze aldera, **ondasunen balorazio teknikoa egin beharko da**, toki entitateen ondasunen erregelamenduko 112.2 art.k ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatze aldera.

3.-IZAPIDETZA

- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 8.art-k xedatutakoaren arabera, alkatetzaren dekretuz desafekzio espedientea jendaurrean jartzea, hilabete bateko epean. Iragarkia G.A.O.-n eta iragarki taulan jarriko da.
- Ondoren, udalbatza plenoak, gehiengo absolutuz onetsi beharko du espedientea.
- Behin ondasuna desafektatuta, eta txostenean zehar aipaturiko baldintzak behin beteta, dagokion batzordeak diktaminaturik, udalbatza plenoak onartu beharko du permuta (apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.art).



Usurbilgo Udala



- Ondasunen balorazioak aurrekontuko errekurtsio arrunten %20-a gaindituko balu, udalbatza plenoaren gehiengo absolutua beharko litzateke.
- Bestetik, kopuru horren % 25-a gaindituko balu, foru aldundiaren baimena beharko litzateke.

Gogoratu behar da bestalde, apirilaren 18ko 781/1986 Errege-dekretu Legegilearen 54.1.b) artikulua, idazkariaren txostena eskatzen duela berariaz, erabakia gehiengo absolutuz hartu behar denean, eta hori betez, Idazkari honek aurkezten du txosten hau.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2013ko azaroaren 28an
Udal idazkariak
Nagore Sarasola Otermin

Beraz ezer baino lehen jabari publiko ondasunen desafekzioa burutu behar da Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuko 8. artikulua araberara. Hala, udal idazkariak egindako txostena kontutan izanik Alkateak 2013ko abenduaren 11ean 2013/1219 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorean kokatutako udal jabari publikoko 5.201 m² lursailetik, 55,93 m²-ko lur zatia desafektatzeko espedientea hastea, espedientean agertzen diren planoetan jasotzen den moduan MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearen lur zati batekin permuta burutu ahal izateko.

BIGARRENA: Desafekzio espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita. Iragarkia Usurbilgo Udaleko iragarki oholean ere jarriko da.

Emandako ebazpenaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epealdian dagokion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz (GAO, 240. alea, 2013ko abenduaren 18an) eta udaletxeko iragarki oholean txertatuz.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean ez da inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, burutu nahi den lur trukaketa aztertu eta ondoko txostena eman du:



Usurbilgo Udala



EE2013_00_01

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
PERMUTA

S-6 AGERREZPI SEKTOREAREN UDAL JABETZAKO LUR SAIL
BAT ARANTXA UNANUE ROTETAREN JABETZAKO BESTE
BATEKIN TRUKATZEKO LURSAILEN BALORAZIO TEKNIKOAREN
TXOSTENA

KOKAPENA; AGERREAZPI eremua, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ06. 2012-324

AURREKARIAK

- 2004ko irailaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bitartez behin betiko onartu ziren Usurbilgo Plangintza Arau Subsidiarioetan (2011ko irailaren 6ko akordioaren bidez Testu Bateratuan).
- 2007ko martxoaren 28an S-6 AGERREAZPI sektorearen Plan Partziala behin betiko onartu zen.(HZ.01/2006-0100)
- 2008ko maiatzaren 24an S-6 AGERREAZPI sektorearen Plan Partzialaren 1. Aldaketa behin betiko onartu zen eta 2010eko abenduaren 28an 2. Aldaketa (HZ.01/2010-0463).
- 2011ko urtarrilaren 25ean S-6 AGERREAZPI sektoreko Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu zen.
- 2011ko apirilaren 15ean S-6 AGERREAZPI sektoreko Urbanizazio Proiektua behin betiko onartu zen (HZ.01/2010-0514).
- 2013ko ekainaren 7an urbanizazio lanen lehen zatiaren harrera akta izenpetu zen.
- 2013ko urriaren 25ean aholkularitza juridikoaren txostena, udal lursailaren desafektazioa eta ondorengo trukaketa bideragarriak direla ondorioztatuz.
- 2013ko azaroaren 28an udal idazkariak txostena egin zuen, trukaketa egin aurrez udalaren lursailaren desafektazioa egin beharra ondorioztatuz, izapidetzea zehaztuz eta baita ere, “*ondasunen balorazio teknikoa egin beharko da*” esanaz.
- 2013ko abenduaren 11ean Alkatezaren 2013/1219 Dekretua, honakoa esanaz.

“ERABAKI DUT

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorean kokatutako udal jabari publikoko 5.201 m² lurrailetik, 55,93 m²-ko lur zatia desafektatzeko espedientea hastea, espedientean agertzen diren planoetan jasotzen den moduan MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearen lur zati batekin permuta burutu ahal izateko.

BIGARRENA: Desafektzio espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia Usurbilgo Udaleko iragarki oholean ere jarriko da.”



Usurbilgo Udala



I. 2013ko abenduaren 18an GAO-n iragarkia, espedientea HILABETEKO EPEz jendaurrean jarriaz.

TXOSTENA

2013ko abenduaren 11ko 2013/1219 Alkatetza Dekretuan adierazten denez: *“Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 Agerreazpi Sekotrekko Urbanizazio Proiektuko lanak behar bezala bukatzeko zinbestekoa da sektoretik kanpo kokatuta dagoen jabari pribatuko 55,93 m²-ko lur zatia hartzea. Lur zati hau MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearena da eta Hiri Antolamenduko Arau Subisidaioetako A-106 Agerreazpi eremuan kokatzen da, aipatutako sektorearen muga.*

Gauzak horrela, urbanizazio lanak bukatzeko, hartu beharreko 55,93 m²-ko lur zati hau S-6 Agerreazpi Sektoretiko jabari publikoko 55,93 m²-ko beste lur zati bategatik permutatzea adostu da MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearekin.”

Txosten honen xedea da udal idazkariak 2013ko azaroaren 28ko txostenean lursailen trukaketa egin aurrez eskatzen duen ondasunen balorazio teknikoa egitea, toki entitateen ondasunen erregelamenduko 112.2 art.k ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen aldera. Baloratu eta alderatu beharreko lurra dira, S-6 Agerreazpi Sektorean udal jabegoa duten 55,93 m² eta A-106 Agerreazpi eremuan jabego pribatua duten 55,93 m² (ikus irudia).



S-6 Agerreazpi Sektorearen Birpartzelazioa Proiektua inskribatzearekin, Usurbilgo Udalak trukatu nahi den zatia jasota dagoen lursaila eskuratu zuen. Lursaila erabilera publikoari atxikita dago; jabari publikoko udal ondasuna da. Jabetza Erregistroko ziurtagirian honela jasotzen da:

Finca: 5611

Superficie: 5.201 m²

Descripción de la finca: Finca urbana señalada con la referencia B de la relación de parcelas resultantes del PROYECTO DE REPARCELACIÓN DEL SECTOR S-6 AGERREAZPI de las NN.SS de Usurbil. Parcela destinada a equipamiento comunitario público, con una superficie de 5.201 m². Tiene una edificabilidad sobre rasante de 2.500 m²/t. Bajo rasante tiene un techo de 1.000 m² (t). Su perfil edificatorio es de sótano, planta baja o entresuelo y dos plantas altas. Sus linderos son: Norte: parcela C destinada a parque urbano. Sur: parcela C destinada a parque urbano y parcela D destinada a espacios libres comunes, red peatonal y viales. Este: parcela C destinada a parque urbano. Oeste: Límite de la Unidad de Ejecución y parcela D destinada a espacios libres comunes, red peatonal y viales.

Titularidad: AYUNTAMIENTO DE USURBIL 100% del PLENO DOMINIO



Usurbilgo Udala

Inscripción: Folio 199 del tomo 1772, libreo 216, inscripción/anotación 1.

Bertan ekipamendu publikoa komunitario eraiki daiteke, erregistro orrian ikus daitekeen bezala. 55,93 m²-ko lursail hau, Usurbilgo AASST-en arabera hiri lurzoruan kokatzen da (Sektorearen urbanizazioa partzialki errepezionatua baitago eta partzialki eraikia, ikus dagozkion espedienteak), eta sistema lokala osatzen du. Sistema lokal horretan bertan ekipamendu publikoa komunitario eraiki daiteke, erregistro orrian eta plangintza dokumentu onartuetan ikus daitekeen bezala. 2/2008 Erret Lege Dekretuaren 12.3. artikulua arabera, lurzoru urbanizatuaren egoeran dago eta bere balorazioa, 2/2008 Erret Lege Dekretuaren 24. artikulua arabera eta 2011ko urriaren 24ko 1492/2011 Erret Dekretuaren 22. artikulua arabera honakoa litzateke;

$$\mathbf{VRS = (Vv/K) - Vc}$$

S-6 Agerreazpi Sektorean, ekipamendu publikoaren datuak hartuta (hau da; 146 m²(t) eta PEM=89.720euro):

$$Vv = 2.511,81 \text{ euro/m}^2(t) \times 0,8 = 2009,45 \text{ euro/m}^2(t)$$

$$K = 1,4$$

$$Vc = 89.729\text{euro}/146 \text{ m}^2(t) = 614,5 \text{ euro/m}^2(t)$$

Hortik;

$$\mathbf{VRS = (2.009,45 \text{ euro/m}^2(t) / 1,4) - 614,5 \text{ euro/m}^2(t) = 820,82 \text{ euro/m}^2(t)}$$

$$\text{Hortik guztira; VRS} = 820,82\text{euro/m}^2(t) \times 55,93\text{m}^2 = \mathbf{45.908,5\text{euro}}$$

Bestetik, ARANTZA UNANUE ROTETAren jabegoa den lursailaren zatia, Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera A-106 AGERREAZPI eremuan kokatzen da, hiri lurzoru klasifikazioan. Jabetza Erregistroko ziurtagirian azalera hori bi zatita, bi finketan, honela jasotzen da:

Alde batetik (ikus atxikitako dokumentuak);

“RÚSTICA. TROZO DE TERRENO SITO EN JURISDICCIÓN DE USURBIL, SITUADO DENTRO DEL ÁREA A-106 (AGERREAZPI) DE LAS NNSS DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE USURBIL. TIENE UNA SUPERFICIE DE OCHENTA Y TRES METROS CINCUENTA DECIMETROS CUADRADOS (83,50). LINDA: AL NORTE, CON PERTENECIDOS DEL CASERÍO AGERREAZPI; AL SUR, CON FINCA QUE SE SEGREGA APROTADA AL PROYECTO DE REPARCELACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN DEL SECTOR S-6 AGERREAZPI; AL ESTE, CON PERTENECIDOS DEL CASERÍO AGERREAZPI; Y POR EL OESTE, CON FINCA DE QUE SE SEGREGA APROTADA AL PROYECTO DE REAPRACELACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN DEL SECTOR S-6 AGERREAZPI.”

Finka honen 3,95 m²-ko lur azalera trukaketa burutu nahi da.

Bestetik (ikus atxikitako dokumentuak);



Usurbilgo Udala



“CASERÍA DENOMINADA “AGERREA-AZPI” FINCA SITA EN EL CUARTEL NORTE DE LA VILLA DE USURBIL, SEÑALADA CON EL NÚMERO OCHO. Tiene una superficie solar sobre rasante de trescientos diez metros sesenta decímetros cuadrados y una superficie total construida de setecientos seismetros cincuenta y cuatro decímetros cuadrados. (...)Linda; Norte con terreno cultivado, poblado de árboles fructíferos, de su pertenencia; Este, con el sembradío de Etxe-azpia, de su pertenencia; Sur, con la antepuerta; y Oeste, con camino carretil que se dirige al monte.”

Finka honen 51,97 m2-ko lur azalera trukaketa burutu nahi da.

55,93 m2-ko lursail hau, Usurbilgo AASST-en arabera hiri lurzoruan kokatzen da eta ez dago eraikia. 2/2008 Erret Lege Dekretuaren 12.3. artikulua arabera, lurzoru urbanizatuaren egoeran dago eta bere balorazioa, 2/2008 Erret Lege Dekretuaren 24. artikulua arabera eta 2011ko urriaren 24ko 1492/2011 Erret Dekretuaren 22. artikulua arabera honakoa litzateke;

$$\text{VRS} = (\text{Vv}/\text{K}) - \text{Vc}$$

Udalherrian gertuko kokapen antzekoetan (hiri lurzorua eta eraikuntza unifamiliarrekin), hain zuzen HEU 107.11 eta HEU 107.10 unitateetan 2013 eta 2014an onartu diren birpartzelazio dokumentuetan honako baloreak erabili dira:

$$\begin{aligned} \text{Vv} &= 2.511,81 \text{ euro/m}^2(\text{t}) \\ \text{K} &= 1,4 \\ \text{Vc} &= 964,33 \text{ euro/m}^2(\text{t}) \\ \text{Hortik;} \end{aligned}$$

$$\text{VRS} = (2.511,81 \text{ euro/m}^2(\text{t}) / 1,4) - 964,33 \text{ euro/m}^2(\text{t}) = 829,82 \text{ euro/m}^2(\text{t})$$

$$\text{Hortik guztira; VRS} = 829,82 \text{ euro/m}^2(\text{t}) \times 55,93 \text{ m}^2 = 46.411,83 \text{ euro}$$

ONDORIOAK

Udal jabetzako lursailen permuta balioztatzeko, Toki Entitateen Ondasunen erreglamenduko 112.2. art.ak ezarritako baldintzak betetzen diren aztertzen da ondorengo txostenean.

Toki Entitateen Ondasunen erreglamenduko 112.2.art.ak honela dio:
“No será necesaria la subasta en los casos de enajenación mediante permuta con otros bienes de carácter inmobiliario, previo expediente que acredite la necesidad de efectuarla y que la diferencia del valor entre los bienes que se trate de permutar no se superior al 40% del que tenga mayor”.

Kasu honetan;

	Azalera m ²	VRS euro/m ²	VRS euro
S-6 Agerreazpi SEKTOREA	55,93	820,82	45.908,50
A-106 Agerreazpi EREMUA	55,93	829,82	46.411,83



Usurbilgo Udala



Beraz, esan liteke, permuta egin nahi den bi lursailen balioen arteko diferentziak ez duela %40a gainditzen.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2013ko urtarrilaren 22a.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal arkitektoaren txostenaren arabera, permutatu nahi diren bi lursailen balioen arteko diferentzia ez du % 40a gainditzen. Beraz, permuta gauzatu daiteke.

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren aldeko botoekin, aho batez, Plenoari aurkeztutako erizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorean kokatutako udal jabari publikoko 5.201 m² lursailetik, 55,93 m²-ko lur zatia desafektatzea espedientean agertzen diren planoetan jasotzen den moduan.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorean kokatutako udal jabari publikoko 5.201 m² lursailetik, desafektatutako 55,93 m²-ko lur zatia bereizteko udal baimena ematea.

HIRUGARRENA: MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA andereari bere jabetzetatik Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-106 (Agerreazpi) Eremuan kokatutako 55,93 m²-ko lur zatia bereizteko udal baimena ematea, ondoko eran:

- Jabetza erregistroko 11220 finkatik, 3,95 m²-ko zatia.
- Jabetza erregistroko 172 finkatik, 51,97 m²-ko zatia.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektorean barruan, Usurbilgo Udalaren jabetzako 55,93 m² lur zatia, AASSetako A-106 (Agerreazpi) Eremuan dagoen MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA anderearen jabetzako 55,93 m²-ko beste lur zati batengatik permutatzea ondoko baldintzekin:

- Udalak eskuratuko duen 55,93 m²-ko lur zatia erabilera publikoari atxikiko zaio, udal jabari publikoko ondasun izendatuz; eta Alkateak, 2011/0079 zenbakidun dekretuaren bidez, 2011ko urtarrilaren 25ean, behin betikoz onartututako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreari dagokion Birpartzelazio Proiektuko 9.349 m²-ko D partzelari agretatuko zaio.



Usurbilgo Udala

- MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA andreak jaso duen 55,93 m² lur zatia, Agerreazpi baserriko onibarrari agregatuko zaio.
- Permuta eskritura publikoan formalizatuko da eta gastuok udalaren kontura izango dira.

BOSGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

SEIGARRENA: Alkateari ahalmena ematea, hartutako erabakia gauzatzeko, Udalaren ordezkarietan beharrezko dokumentua izenpetu ditzan.

ZAZPIGARRENA: Erabaki hau MARIA ARANZAZU UNANUE ROTETA andereari jakinaraztea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, erizpena aho batez onartua izan da.

4.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEAREN BAITAN, ZUGASTI BASERRIA BIRGAITZEKO OBRA, DUEN INTERES HISTORIKO, ARTISTIKO ETA KULTURALAGATIK, INTERES BEREZIKOA IZENDATZEA ETA AIPATUTAKO ZERGARI %50EKO HOBARIA APLIKATZEA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Urte hasieran Zugasti baserria birgaitzeko baimena eman zela eta, behin lanak amaituta, orain Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokion hobaria aplikatzea eskatzen dutela esan du.

Usurbilgo udaleko ordenantza fiskalaren arabera, honek omen dio %50ko hobaria aplikatu daitekeela, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Era berean, izendapena Udal Batzarrak onartu beharko duela, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko dela, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Zugasti baserria Eusko Jaurlaritzako kultura ondarearen zerrendan dagoela zehaztu du, Done Jakue bidearen monumentu multzoaren barnean sartuta, beraz, hobari hau aplikarria izateko behar diren baldintzak betetzen dituela esan du.



Usurbilgo Udala



Luisuari Ormaetxeak hitza hartu du eta adierazi du, alkateak esan duen moduan, urte hasieran birgaitze obra egiteko baimena eman zitzaizela eta, halaber, baserria Eusko Jaurlaritzaren zerrenda batetan dagoela “bien cultural calificado” bezala, eta horrelako ondasunek kontutan hartu beharreko lege bat daukatela, hain zuzen ere, 7/1990 Legea. Zehaztu du lege horren 28. artikulua horrela diola: “*Los bienes inmuebles calificados deberán ser conservados con sujeción al régimen de protección y a los instrumentos de planeamiento urbanístico que deberán ajustarse a aquél, y que en todo caso deberán contar con el informe favorable del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco, en las condiciones que reglamentariamente se determinen...*”. Hau kontutan hartuta, espedientea begiratu duela esan du eta ez duela ikusi dio Eusko Jaurlaritzari txostenik eskatu zaionik. Txosten hori baden edo ez den jakin nahiko lukeela esan du.

Alkateak erantzun dio momentu honetan ez dakiela eta ezin diola erantzun. Jakinarazi dio, buruz ari bada ere, Foru Aldundiak ezarri zituela hainbat elementu mantendu behar zirela eta udal arkitektoak horren arabera neurriak jarri zituela obra egiteko baimena emateko orduan.

Idazkariak esan du obrari dagokion espedientea ez duela eskuartean, soilik hobariaren espedientea duela, eta beste espedientea begiratu beharko litzatekeela.

Alkateak zehaztu du, edozein kasutan, Luisuari komentatu duen horrek gaur hartzera doazen erabakiari ez diola eragiten.

Luisuari Ormaetxeak esan du beraien ustez eragiten diola, zeren, lege zuzen hartu gabeko erabaki baten ondorengo beste erabaki bat hartzen ariko bailirateke. Batzordean abstenitu egin zela dio eta bertan adierazi omen zuen zalantzak zituela obra horrek zer nolako interes historiko, artistiko edo kultural babesten zuen orain aplikatu nahi den hobari honekin. Bere ustez prozedura osatu gabe dagoela dio eta ez zaiola egokia iruditzen aurrera jarraitzea. Ondorioz, batzordean aurreratu zuen bezala beraien bozka aurkakoa izango dela esan du.

Alkateak azpimarratu du Zugasti baserria erabat garbi dagoela, Eusko Jaurlaritzak ondare kultural bezala daukala katalogatuta eta hor ez dagoela duda izpirik. Bestalde, udal honek bere ordenantzan jarrita dituen baldintzak betetzen dituela gaineratu du.

Luisuari Ormaetxeak erantzun dio “baina ez edozein obra egiteko”.

Alkateak esan du “birgaitzeko orduan”.



Usurbilgo Udala



Luisuari Ormaetxeak “baina ez edozein birgaitze obra ere”.

Alkateak erantzun dio “baina ez du egin edozein birgaitze obra”. Gaineratu du lizentzia eman zitzaion momentuan errespetatu behar zituen hainbat baldintza jarri zitzaizkiola. Hala ere, egin duen galdera Hirigintza Batzordean egin behar zuela esan dio, arkitektoa aurrean zegoenean. Bestalde, azpimarratu du orain eztabaidatzen ari direna hobaria aplikatzea dela.

Luisuari Ormaetxeak erantzun dio batzordean ere hobariari buruz ari zirela eta aurreratu zuela espedientea begiratzeko jarraituko zuela zalantzak zituelako. Espedientearen begiratzeko hutsune hau aurkitu duela adierazi du, eta mahai gainean jarri duenean, gaur plenoan jaso duen erantzuna ikusita, aurkako bozka emango dutela.

Alkateak esan du ustezko hutsunea dela. Berretsi du Zugasti baserriak eskubide osoa duela hobari hori jasotzeko.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2014-0129

AIZPEA AIZPURUA ARROIO andereak aurkeztutako idatzia aztertu da (Esp. Zenbakia: HZ.06/2014-0129). Bertan, Zugasti baserria birgaitzeko emandako udal baimena dela-eta, ezarritako eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari hobaria aplikatzea eskatzen du.

ZIRKUNSTANTZIA SOZIAL, KULTURAL EDO HISTORIKO-ARTISTIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiuren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andereari
OBRA NAGUSIAK
TXOSTEN TEKNIKOA

SUSTATZAILEA: Aizpea Aizpurua Arroio.

PROIEKTUA: Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko udal baimena.

KOKAPENA: Zubietako auzoa; Usurbil.

ERREDAKTATZAILEA: Celia Lana, Arkitektoa.

OBRA BAIMENAREN DATA: 2.014ko urtarrilaren 17.

0.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala



2014ko urtarrilaren 17an TGB-k udal baimena eman zuen Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko.

1.- ESKABIDEAREN EDUKINA

Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko udal baimena dela eta EIOZ hobaria aplikatzea eskatzen da.

2.- ARAUDIAREN APLIKAGARRITASUNA

Usurbilgo Udalak behin betirako onartutako *Ondasun higiezinari buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenantza fiskala*, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013eko abenduaren 17an 240. zenbakian argitaratua da aplikagarri.

Eskatzen den hobariak *Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzaileen, VII. HOBARIAK* ataleko 11. artikuluan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu eta zehazki a) puntuan honela dio:

a) %50ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Eta kontutan izanik Kultura eta Euskara Departamenduak adierazitakoa 2011ko urriaren 21an udalera igorritako bere aldeko txostenean eta baita ere, 2013ko irailaren 10ean GAO-n argitaratu zen Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateraginak Zugasti Baserria Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, lehentasunezko interesa duten ondasun higiezin bezala izendatzeko proposatutakoen artean agertzen dela gogoraeraziz, justifikatua geratzen da zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak daudela kasu honetan,

3.- ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, Obra Baimenaren ondorioz ordaindu beharreko udal zergatan %50eko hobari eskaera (EOIZ art. 11.a.)ri ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere Udal Batzarrak hala onartzen duen artean.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2014ko martxoaren 21ean.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

BASERRIA BIRGAITZEKO UDAL BAIMENA



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko urtarrilaren 17an, Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko (Zubieta 23) udal baimena eman zion AIZPEA AIZPURUA ARROIO andereari beharrezko izapidetzearen ondoren.

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Josune Urkolaren aldeko botoekin, eta Luis Mari Ormaetxearen abstentzioarekin, gehiengoz, Plenoari aurkeztutako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzailearen baitan, Zugasti baserria birgaitzeko obra, duen interes historiko, artistiko eta kulturalagatik, interes berezikoa izendatzea.

BIGARRENA: Zugasti baserria birgaitzeko emandako udal baimena dela-eta, ezarritako eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari %50 hobaria aplikatzeko agintzea dagokion ordenantzak xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari eta interesatuari ematea."

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, erizpena gehiengoz onartua izan da.

5.- 2014KO MARTXOAREN 28KO 2014/0292 ZENBAKIDUN DEKRETUA BERRESTEA: SAN MARKO MANKOMUNITATEKO 2014KO AURREKONTUEN AURKA AUZI-ERREKURTSOA AURKEZTEA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du auzi-errekurtsoa aurkeztea beharrezkoa jo zela. Ogasuneko batzordean bertan Ingurumen zinegotziak arrazoiak nahiko luze azaldu zituela esan du.

Luismari Ormaetxeak esan du aurka bozkatuko dutela eta jarraian arrazoiak azaldu ditu. Ogasuneko batzordean Ingurumen eta Nekazaritza zinegotziak berak argitu zela asuntoaren muina edo epaiketaren kontenidua adierazi du. Bere agerpenean azaldu zuela dio urte askotan, orain dela ez asko arte, San Marko Mankomunitateak bilketa zerbitzua eskaini izan duela Usurbilen eta inguruko herrietan, eta hori auzi honetan



Usurbilgo Udala



kuestionatzen edo mahai gainean jartzen den argumentu batekin, hau da, ez direla betetzen San Marko Mankomunitateko estatutuak. Hori horrela, momentu hartan, estatutuak berdinak izanik, malgutasunez funtzionatu baldin bazuen San Marko Mankomunitateak, orain ere funtzionatu ahal dezakeela adierazi du. Hau horrela izanik, auzibide honekin jarraitzeari ez diotela zentzurik aurkitzen esan du.

Alkateak erantzun dio malgutasun horrekin funtzionatzeak esan nahi duena dela onartzea udal honek kalte ekonomiko bat jasatea, eta hori udalaren aldetik onartezina eta defendagarri ezina dela azpimarratu du.

Alaitz Aizpuruak ere erantzun dio berdintasun batetaz ari direla hitz egiten. Arazoa sortzen dela dio zerbitzua denentzako berdina ez denean, nahiz eta estatutuak berdinak izan eskaintzen diren zerbitzuak aldatzen badira hor datoz arazoak.

Kontu-hartzaileak adierazi du kontutan eduki behar dela ere FCCrekin kontratu bat zegoela eta agian kontratu hori moztea ez zela erraza edo legalki ezin zela. Kontratu hori orain amaitzen dela gaineratu du eta pleguak ateratzeko momentua orain izan daitekeela.

Luisuari Ormaetxeak zehaztu du Usurbili ondo etorri zaionean San Marko Mankomunitatearen laguntza, adibidez, Atez Ateko sistema jartzeko garaian laguntzak jaso zituela, eta orduan estatutuak ez zirela begiratzen esan du, baina bai orain. Beraz, interes hutsa izan dela azpimarratu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio noski interesa dagoela. Kontutan hartu behar dela esan du hitz egiten, negoziatzen, gaia aztertzen saiatu direla baina beste aldeak inondik inora ez duela kasurik egin, eta hor sortzen dela gatazka esan du.

Bestalde, herri honen interesak defendatzea tokatzen zaiela azpimarratu du.

Alkateak gaineratu du trataera justu bat dela eskatzen dena. Saiakera guztiak egin ondoren, epaitegietara jotzea beste biderik ez dela geratu esan du.

Batzarkideek, Ogasuna Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute eta, ondorioz, 2014/0292 zenbakidun dekretua berretsia izan da, honako testuaren arabera:

“Usurbilgo Alkate-Lehendakariak 2014ko martxoaren 28an, 2014/0292 zenbakidun dekretuaren bidez (ID.08/2014-0121) zera erabaki zuen hitzez hitz:

“ALKATETZAREN DEKRETUA



Usurbilgo Udala

MERTXE AIZPURUA ARZALLUS, Usurbilgo Udaleko Alkate-Lehendakariak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

San Marko mankomunitateak, 2014ko urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2014ko aurrekontuen behin betiko onarpena argitaratu duela.

Legeak aurreikusitako epearen barruan administrazioarekiko auzi-errekurtsua tartekatzea beharrezkoa jotzen dela.

KONTUTAN HARTURIK

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legeak xedatutakoa, honako hau

EBATZI DUT

LEHEN: San Marko mankomunitateak, 2014ko urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko aurrekontuen behin betiko onarpena Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea, Udal honen interesak defendatuz.

BIGARREN: Jarraian aipatzen diren abokatu eta prokuradoreak izendatzea Usurbilgo Udalaren ordezkaritzan aritzeko dagokien auzi-organoetan

- Abokatua: Iñigo Lizari Illaramendi jauna
- Bilboko prokuradorea: German Ors Simon jauna

Udalak prokuradoreen alde emanak dituen ahalmen oro erabili ditzakete.

HIRUGARREN: Kontratu txiki honek eragindako gastua aurrekontuko 1.1000.226.121.00.01 partidaren kontura joango da.

LAUGARREN: Usurbilgo Udalbatza Plenoari akordio honen berri ematea, ospatzen duen lehen bilkuran, erabaki hau berretsi dezan.

BOSGARREN: Erabaki honen berri izendaturiko Abokatuei eta Kontuhartzaitzari ematea.”

Beraz, Alkate-Lehendakariak erabakitakoa berrestea Udalbatza Plenoari dagokio.

Horrela beraz, Batzordea osatzen duten, Alaitz Aizpurua, Mertxe Aizpurua eta Jone Urdampilletaren aldeko botoekin, eta Josune Urkola eta Luisuari Ormaetxearen abstentzioarekin, Ogasun Batzordeak, 2014ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Plenoari aurkeztutako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENDABIZI: Alkate-Lehendakariak 2014ko martxoaren 28an 2014/0292 dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, erizpena gehiengoz onartua izan da.

6.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da ez galdera ez eskaerarik egin.

6.1.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDAL FINANTZIAZIOAREN FORU FONDOAREN (UFFF) LIKIDAZIOA.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Luismari Ormaetxeak adierazi du bere taldeak ez duela ulertu mozio hau. Gipuzkoa osoan ari direla agintzen eta ez dutela ulertzen dio “autobonbo” honen beharra. Esplikazioak eskatu ditu.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio gai hau Foru Aldundian Bilduk egiten duen gestioaz haratago dagoela, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin negoziatutako kontu batetik datorrela zehaztu du. Ez oraingo ekitaldian bakarrik, azken ekitaldietan egiten ari den gestioa dela esan du eta Foru Aldundiak Udalei ematen dien aukera desbideraketa horiek itzultzeko moduak etab. kontutan hartuta, mozio hau aurrera ateratzeko arrazoia nahikoa dela zehaztu du.

Batzarkideek, EHBilduk aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“2014ko otsailaren 13an Finantzen Euskal Kontseiluak izandako bileran, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek erabaki zuten adostasun planteamendu orokor bat egitea: hiru erabaki hartu zituzten nagusiki,



Usurbilgo Udala

2013an balantzeen eguneratzearen ondorioz lortutako diru sarrerren banaketak eragin duen ez-ohiko egoerari aurre egiteko.

Azken finean, hauexek dira erakundeek hartutako erabakiak: 1) energiaren gaineko zergen bilketa koefiziente horizontalaren arabera doitzea; 2) 2013tik aurrera “opor fiskalak” direla-eta berreskuratutako laguntzak ekarpenen eredu orokorrean txertatzea; eta 3) Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euroko ez-ohiko ekarpena egitea, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean hurrenez hurren 2,2 eta 7,8 milioi euro banatzeko.

Nahiz eta Finantzen Euskal Kontseiluaren erabakiak guztiz ez bete Gipuzkoako Aldundiaren itxaropenak, bere asmoak arrazoizko modu batean asebetetzen ditu eta alde guztien interesei erantzuten die. Hiru erabakiak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere hasierako planteamenduarekin bilatutako emaitzaren %65,6 lortu zuen, alegia, lurraldearen baliabide erabilgarriak 14 milioi euro handitu ziren.

Horrek guztiak bereziki eragiten die Gipuzkoako udalei, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren likidazioari dagokionez. Izan ere, likidazioa 5,6 milioi euro hobetuko da Finantzen Kontseiluak hartutako ez-ohiko erabakien ondorioz, aurreikusita zegoen Udalentzako Funtzaren itzulketa erdira jaisteko aukera emango delarik.

Udalak Finantzatzeko Foru Funtzari buruzko 15/994 Foru Arauak 6. artikuluan dioenez, ondorengo ekitaldiko otsailean behin betiko likidazioa egingo da, eta Udakak Finantzatzeko Foru Funtzaren likidazioan ekitaldiko aurrekontuarekin konparatuta gerta daitezkeen aldeak arrisku partekatua aplikatuz esleituko zaizkie Gipuzkoako udalerriei, onartutako aurrekontuan hasiera batean finkatutako kuoten zuzeneko proportzioan.

Era berean, salbuespen gisa, behin betiko likidaziotik Foru Aldundiaren alde atera daitezkeen saldoak geroratu edo zatikatu daitezke, Diputatuen Kontseiluak kasu bakoitzerako erabakitzen dituen moduan eta baldintzetan.

Foru arau hori aplikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalak Finantzatzeko 2013ko Foru Funtzaren Likidazioa onartu du. Horren arabera, udalek eta EUDELeK guztira 5,59 milioi euro itzuli behar dizkiote Aldundiari, diru hori soberan jaso baitzuten ekitaldian konturako entrega moduan. Kopuru hori 2013an jasotako aurrerakinen %1,42 da, eta nabarmen txikiagoa da aurreko urteetan likidatutako itzulketak baino. Hona hemen horien xehetasuna:

UFFF	Aurrekontua (1)	Likidazioa (2)	Diferentzia (3)=(1)-(2)	% (4)=(3)/(1)	Ekarpen bereziak (5)	Itzulketa saldoa (6)=(3)-(5)	% (7)=(6)/(1)
2008	458.747,77	404.432,72	54.315,05	11,84%		54.315,05	%11,84
2009	444.946,25	345.895,50	99.050,75	22,26%		99.050,75	%22,26
2010	395.532,49	392.492,24	3.040,25	0,77%		3.040,25	%0,77
2011	407.466,78	355.951,45	51.515,33	12,64%	1.747,16	49.768,17	%12,21
2012	396.934,37	381.223,76	15.710,60	3,96%	2.343,29	13.367,32	%3,37
2013	393.471,88	384.743,73	8.728,15	2,22%	3.135,69	5.592,46	%1,42



Usurbilgo Udala



2011 eta 2012ko ekarpen berezia “opor fiskaletan” parte hartu izanari lotuta dago. 2013ko ekarpen berezia, aldiz, Jaurlaritzaren ez-ohiko ekarpenean parte hartzeari lotuta dago.

Udalentzako Funtsaren likidazioak desbiderapen txiki xamarra izan arren (-%1,42), Aldundiak erabaki zuen itzulketa horiek 2014an lau epetan geroratzea.

Hori dela eta, Udalbatza plenoak honako mozioa onartu du gehiengoz:

MOZIOA

1. Udaleko osoko bilkurak adierazten du Finantzen Euskal Kontseiluak 2014ko otsailean erabakitako irtenbidearen edukia **babesten duela eta horrekin ados dagoela**, irtenbide horrek Gipuzkoako udalen interesak arrazoizko modu batean asebetetzen baititu.
2. Gainera, **ondo baloratzen ditu** Foru Aldundiko arduradunek aurrelikidazio fasean (urria) nahiz Udalentsako Funtsaren likidazioaren xehetasunen berri emateko 2014ko otsailaren 17an antolatutako bileran emandako informazioa eta zuzeneko komunikazioa.
3. Eta, azkenik, **adostasuna ematen dio** alkate eta udalekin izandako bileran aurkeztu den itzulketa formulari, horren bitartez udalek 2014an hiru hilean behin egingo diren 4 konturako entregetan konpentsazioak eginez itzuli ahal izango baitute likidazioaren emaitza.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Iruetia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

6.2.- GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA ERAKUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: CEUTARA IRITSI NAHIAN OTSAILAREN 6AN HILDAKOAK.

Jone Urdanpilletak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Gipuzkoako SOS Arrazakeria erakundeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Joan den otsailaren 6an, Ceutara iritsi nahian gutxienez 15 lagun hil izanak eta Guardia Zibilak haien aurka erabilitako indarkeriak iritzi publikoa asaldatu du.



Usurbilgo Udala

Nazioarteko zuzenbide humanitarioak agintzen duen bizitzaren babesaren gainetik mugen kontrola lehenestea ez dator bat gure legeriarekin ez eta gure balio moralekin.

Nola ahaztu, halaber, kanporatuak izan diren edo ihesera jo duten pertsona horien herrialdeetako egoera ekonomiko eta sozialean Europako Batasunak duen erantzukizuna.

Gertaera hauek berriro nabarmen erakutsi dute ze ondorio dakartzan Europako Batasunaren migrazio politika mugen blindatze tematian oinarritzeak: Mediterraneo eta EBeko hego muga hobi komun bihurtu dira.

Ceutako eskuhartzeak gizarte zibilaren eta politikarien gaitzespena eragin du, eta poliziaren jokaeraren kritikaz gain ikerketa independentea eta erantzukizun politikoak ere eskatu dira.

Gertatutako guztiari Espainiako barne ministroak argibide sinesgaitzekin erantzun dio, Guardia Zibilaren jokaera babestu du eta uko egin dio Guardia Zibileko zuzendaria kargugabetzeari, zeinaren dimisioa aho batez eskatu den.

Horretaz gain, Espainiako gobernuak iragarri du legeetan aldaketak egiteko asmoa duela, etorkizunean poliziaren jokaera horiek babesteko. Jarrera hau bereziki larria iruditzen zaigu, gertatutakoa onartzeaz gain espainiar eta europar legeriak egun babesten dituen eskubideen murrizketa ekarriko duelako.

Honengatik guztiagatik, udal honek

- 1.- Ceutara iritsi nahian otsailaren 6an hildako pertsonen heriotza deitoratzen du, eta bere dolumina eskaintzen die haien senide eta lagunei.
- 2.- Guardia Zibilaren jokaera gaitzesten du, bizitza arriskuan zuten pertsonak lagundu ordez, haien kontra jotzeagatik.
- 3.- Gertaerak ikertzeko batzorde independente bat sortzea eskatzen du, eta erantzukizun politikoak bere gain hartu behar dituenak har ditzala, baita Guardia Zibileko zuzendari orokorraren dimisioa ere.
- 4.- Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala lege aldaketarik egin espainiar estatuko lurraldeetara iritsi nahi duen jendeari egun onartzen zaizkion eskubideak mugatzeko. Bereziki deigarria da espainiar gobernuak aurreratutako asmoetan, aterpe bila dabiltzan pertsonen nazioarteko babesa eragotziko liekeela."

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose



Usurbilgo Udala



Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

Batzarra amaitu aurretik, alkateak adierazi du hainbat lanposturen inguruko informazioa eman nahiko lukeela.

Alde batetik, kontu-hartzaileak soldatarik gabeko baimena eskatu duela esan du, bigarren mailako udaletxeetarako kontuhartzaile hautaketa prozesuko azterketak gainditu dituenek ikastaroa egin behar duelako eta, beraz, maiatzaren 5etik aurrera Asteasuko idazkari-kontuhartzailea etorriko dela akumulazioan zehaztu du. Juan Mari Zubillaga izena duela eta ekainaren 20ra arte egongo dela esan du.

Era berean, kontu-hartzaile berria hautatzeko prozesua ere abian dagoela zehaztu du.

Beste aldetik, egoera berean dagoela esan du pertsonal eta kontratazio teknikaria. Idazkari-kontuhartzaile eta idazkari prozesuak gainditu dituela adierazi du eta honek ere soldatarik gabeko baimena eskatu duela ikastaroa egiteko. Honek maiatzaren 5etik uztailaren 4ra bitartean egingo du ikastaroa. Bere ordezkoa Hernaniko lan poltsatik hartu dela zehaztu du, Nerea Etxebarria, lehenago ere lanpostu horretan lanean aritua.

Bestalde, Plan Orokorraren aurrerakina egiteko 10 hilabetetarako pertsona bat kontratatu dela adierazi du. Martxan jarriko den prozesu parte-hartzailearen gidaritza ere pertsona horrek eramango duela zehaztu du. Maiatzaren 5etik aurrera kontratatuko den pertsona Jone Miner dela esan du, udaleko arkitektuen lan poltsan zegoena eta aurretik ere udal honetan lanean aritua.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.